AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

207

1922/2011 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hautatze-probetarako epaimahaia izendatzeko, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategorian (Obstetrizia eta Ginekologiako Fakultatibo Espezialista Medikuen lanpostu funtzionala) pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1284/2011 Ebazpenaren bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide-Taldeko Mediku (Obstetrizia eta Ginekologiako Fakultatibo Espezialista Medikuen lanpostu funtzionala) kategoriako oinarri espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 19. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatu behar du.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehenago aipatutako kategoriaren prozesuari dagokion Kalifikazio Epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak ebazpen honen I. Eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarren.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA

FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA

Lehendakaria,

– Titularra: Villar Colsa, Francisco

– Ordezkoa: Sanchez Bernal, Rafael

Lehenengo Bokala

– Titularra: Aritzeta Iraola, Jose Maria

– Ordezkoa: Fernandez-llebrez Del Rey, Luis

Bigarren Bokala

– Titularra: Lekuona Artola, Arantxa

– Ordezkoa: Giribet Caldentey, Miguel Angel

Hirugarren Bokala

– Titularra: Pablo Lozano, Jose Luis De

– Ordezkoa: Maiztegui Gorostiza, M. Mercedes

Laugarren Bokala

– Titularra: Murillo Ruiz, Manuel

– Ordezkoa: Cortaberria Ibarlucea, Jose Ramon

Bosgarren Bokala

– Titularra: Fraca Padilla, M. Mercedes

– Ordezkoa: Alvarez Leal, M. Carmen

Seigarren Bokala

– Titularra: Martinez-astorquiza Ortiz de Zarate, Txanton

– Ordezkoa: Brouard Urquiaga, Ignacio

Idazkaria

– Titularra: Rodriguez Carballeira, Susana

– Ordezkoa: Altonaga Altonaga, Ignacio